



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

ZERBITZUAK EMAN EDO ADMINISTRAZIO JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Lurraldeko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasok, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.

Ordenantza hau Udalerriaren eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.

Udalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.

1.- Honako hauek izango dira zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsonak fisikoak zein juridikoak, eta martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 34. Artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunen ordezkotzat hartuko dira:

- a).- Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b).- Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, orohar, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c).- Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

5. artikulua.

Tasak ordaindu behar dituzte:

- a).- Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b).- Partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horien leporagarri dituztenak.

6. artikulua.

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonen ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Salbuespenak edo beste hobari fiskal batzuk emateko, ordenantza honetako tarifen eranskinetako epigrafe zehatzak dakarrena bete beharko da.

V. OINARRI EZARGAIA

8. artikulua.

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua.

Zerga kuota tarifa, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestelako, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIO-ORDAINKETA

11. artikulua.

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likitaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak kitatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Araua Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskina barne, Udalak 1998ko urriaren 28an egindako Osoko Bilkuran onartu zen behin behingoz.

Aldatu zen lehengengoz, 1999ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran.

Aldatu zen bigarren, 2000ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran.

Aldatu zen hirugarren, 2001eko irailaren 27an egindako Osoko Bilkuran.

Aldatu zen laugarren, 2002ko irailaren 24an egindako Osoko Bilkuran.

Aldatu zen bosgarren, 2003ko urriaren 15ean egindako Ezohiko Osoko Bilkuran.

Aldatu zen seigarren, 2004eko urriaren 13an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran.

Aldatu zen zazpigarren, 2005eko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran.

Aldatu zen zortzigarren, 2006ko otsailaren 28an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran.

Aldatu zen bederatzigarren, 2006ko irailaren 27an egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2006ko abenduaren 29an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran.

Aldatu zen hamargarren, 2007ko urriaren 25ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2007ko abenduaren 14an.

Aldatu zen hamaikagarren, 2008ko urriaren 17an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2008ko abenduaren 4an.

Aldatu zen hamabigarren, 2009ko urriaren 16an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2009ko abenduaren 4an.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Aldatu zen hamahirugarrenez, 2010eko uztailaren 29an egindako Ohizko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2010eko urriaren 1ean.

Aldatu zen hamalaugarrenez, 2011ko urriaren 14an egindako Ezohiko Osoko Bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2011ko azaroaren 29an.

Aldatu zen hamabosgarrenez, 2012ko urriaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2012ko abenduaren 10ean.

Aldatu zen hamaiseigarrenez, 2015eko irailaren 14an egindako ezohiko osoko bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2015eko urriaren 30ean.

Aldatu zen hamazazpigarrenez, 2016ko maitzaren 30ean egindako ezohiko osoko bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2016ko uztailaren 15ean.

Aldatu zen hamazortzigarrenez, 2017ko maiatzaren 26an egindako osoko bilkuran hasiera batean, eta behin betiko 2017ko uztailaren 28an.

2017ko urriaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki artean.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

ERANSKINA

I-TARIFAK

A) EPIGRAFEA: AUTOTAXIEN ETA BESTELAKO ALOKAIRU IBILGAILUEN LIZENTZIAK

- 1.- Lizentziak ematea eta luzatzea: **4.755,02 €**
- 2.- Lizentziak transmititzeko baimena ematea:
 - Ezkontide alargun edo legezko oinordekoen alde: **238,25 €**
 - Beste inoren alde: **2.377,56 €**
- 3.- Ibilgailuak ordezteak: **238,25 €**

Tarifak aplikatzeko arauak:

Kontzeptu bakoitzari dagokion ordainarazpena kasuen arabera egingo da, honelaxe:

- a) Lizentziak emateko eta luzatzeko edo lizentzia emateko baimena emateagatik: lizentzia ematen den unea, berdin delarik noiz ematen den.
- b) Aurrerko ibilgailuen lizentziak beste ibilgailu batzuei aplikatzeagatik: ibilgailua aldatzeko baimenaren eskaerarekin batera.

Udal lizentziak ezin eskualda daitezke, salbu eta, Automobil Arinen Garraioaren Hiri eta Hiriarteko Zerbitzuen Araudi Nazionala onartzekoa den martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuaren 14. Artikuluan ezartzen diren kasuetan.

B) EPIGRAFEA: HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK

- 1.- Obra handiak eta/edo aurrekontua dutenak:

Aurrekontua (€)	Zenbatekoa
18.000,01 eta 25.000,00 bitartean	431,17 €
25.000,01 eta 50.000,00 bitartean	538,96 €
50.000,01 eta 75.000,00 bitartean	700,65 €
75.000,01 eta 105.000,00 bitartean	808,45 €
105.000,00 baino gehiago	%0,77 aurrek. – Gehienez ordaindu beharrekoa: 15.360,00 €

- 2.- Obra txikiak, teknikari kualifikatuaren eskuhartzerik behar ez dutenak edo/eta 18.000,01 €-tik beherako aurrekontua dutenak: **58,01 €**
- 3.- Kaletik ikusten diren kartel edota iragarkiak jartzea: **117,18 €**
- 4.- Lur-zatiketak egin, eta finkak elkartu eta banatzeko zerbitzuak: Tramitatutako espediente bakoitzeko: **58,01 €**
- 5.- Hondamen deklarazioari buruzko txostenak, alderdiak hala eskaturik: **456,64 €**
- 6.- Lehenengoz erabiltzeko baimena:
 - Lehenengo etxebizitza: **58,01 €**
 - 2-6 etxebizitza: **105,47 €**
 - 7-20 etxebizitza: **168,76 €**
 - 20 etxebizitza gora: **253,13 €**
- 7.- Gainontzeko baimenak: **105,47 €**

Tarifak aplikatzeko arauak:

- 1.- Tasa itzuli eta bere egitate zergapegarria osatzen duen udal jarduera hasten denean zerga ordaintzeko beharra sortzen da. Honetarako, aipatutako jarduera hasiko da hirigintza-lizentziaren beharrezko eskabidea aurkeztu den datan, subjektu pasiboak eskabidea azaltzen badu.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- 2.- Beharrezko lizentzia lortu gabe obrak hasi edo burutzen direnean, Tasa itzuliko da, hain zuzen ere, delako obrak baimena duen edo ez duen zehaztera daraman udal jarduera hasten denean, obra horien baimena emateko edo eraisteko, baimena edukiko ez balute, izapideak egin ahal dituen espediente administratiboa hastea alde batera.
- 3.- Behin zerga ordaintzeko beharra sortzen denean, ez du eskatutako lizentzia ukatzearen eraginik izango ez eta esleipenaren eraginik ere, aurkeztutako proiektuaren aldaketa baldintzapean jarri baitu. Behin lizentzia emanda eskatzaileak uko egiteak edo atzera egiteak ere ez du eraginik izango.
- 4.- Obra-lizentzia ematean interesdunek aurkeztu ahal izango dute, hau eskatu aurretik, kontsulta-eskabidea eraikinei, eraikuntzei edo instalazioei eta gauzatzeko asmoa duten muntaiei buruz eduki ditzakeen zalantzak argitzeko. Muntaien barnean lursailen lerrokadurei edo maldei, eraikitzeo aukerei, egiteko dauden obren izaera bereziari, eta abarrei dagokionean, eta baita hiri-ordenamendu planekin zerikusia duten arauak aplikatzeari dagokionean ere.
- 5.- Lizentzia-eskabidea egiten den egunean indarrean dagoen ordenantzaren arabera likidatuko dira eskubideak.

Administrazioaren eskubideak bermatzeko eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 27. artikulua xedatzen duenaren arabera, Ordenantza honi dagokion edozein lizentzia-eskabidea, izapideak egiteko onartua izateko, likidatzeko Tasaren alde aurretiko diru-sarrera egiaztatu beharko du.

Baimenari uko egin edota antzeko izaera duen zerbitzuren bati uko egin edota atzera eginez gero, eskatzaileak eskatu eta eman baino lehen edota erabakia hartu ondoren, kitatu beharreko kopuruak goian adierazitakoaren %50a izango dira, betiere udal jarduera hori benetan eman bada.

Edozein motatako baimen edota antzeko administrazio egintzatan luzapena edota titulartasunaren transmisioa ematen denean, ofizioz zein alderdiren batek hala eskatuta, hau emateagatik kitatuko litzatekeen tasaren %25a sorraraziko da (epigrafe honetan adierazitako tarifaren arabera).

C) EPIGRAFEA: SAILKATUTAKO JARDUEREN LIZENTZIA

- Sailkatutako jarduerak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera:

Lokalaren azalera	Zenbatekoa €/m²
250 m ² arte	1,432,94 € Gutxienerako kuota
250 m ² baino gehiago, 500 m ² arte	3,46 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
500 m ² baino gehiago, 1.000 m ² arte	3,22 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
1.000 m ² baino gehiago, 2.500 m ² arte	2,56 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
2.500 m ² baino gehiago, 5.000 m ² arte	2,29 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
5.000 m ² baino gehiago, 7.500 m ² arte	1,44 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
7.500 m ² baino gehiago, 10.000 m ² arte	1,17 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
10.000 m ² baino gehiago	0,84 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko

Tarifak aplikatzeko arauak:

Kontuan izan gabe Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergari lotuak diren ala ez, ordainarazpenaren ondorioetarako honakoxeak jotzen dira lizentzia eskuratu behar duten establezimendu edo lokalizat:

- 1) Lehen instalaziokoak.
- 2) Establezimenduen leku-aldaketak.
- 3) Establezimenduaren titularitatearen aldaketak.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

4) Jarduera aldaketa, baita horren hedakuntza ere, aipaturiko zerga horren tarifyan edo motan gehikuntzak egiten direnean emandakotzat jotzen dena, salbu aipatutako gehikuntzak tipo zergarriak soilik alda ditzan zerga erreformari dagozkionean.

5) Establezimenduaren hedapena.

6) "Behin-behineko irekiera-baimena". Jarduera egiten den tokian lanak egiteagatik edo lokala birgaitzeagatik behin-behineko irekiera-lizentzia eskatzen bada, tasaren %50eko hobaria emango da, eta zenbatekoa deskontatuko da, jatorrizko lokalaren behin betiko lizentzia likidatzen denean, betiere lizentzia hori behin-behineko lizentzia ematen denetik 2 urteko epea baino lehen eskatzen bada.

Administrazio-egintzak edo administrazio-zerbitzuak subjektu pasiboa edo horren ordezkia ukitzen du -edo aipatu egiten du-, subjektuak berak zuzenean edo zeharka eragin duenean. Subjektuaren egintzak eta ez-egiteak Udala behartzen du ofizioz jarduera edo zerbitzuak ematera, segurtasun, osasungarritasun edo hirigintza antolamendu edo bere eskumenekoa den beste arazoia direla eta.

Zergapeko jarduera bat hasten denean dagokion lizentzia eskuratu gabe, tasa udal-jarduera hasten denean sortuko da, irekiera baimendu daitekeen ala ez finkatzeko asmoz.

Tasa sortzen denean, aurkeztutako proiektuaren aldaketak ez du inolaz ere eraginik izango berau ordaintzeko beharrean, ezta lizentzia emandakoan eskatzaileak uko egiten dionean ere.

Irekieraren tasaren ordainketaren egiaztagiria emateak ez du esan nahi ukatzeko ahalmenari ezezkia ematen dionik Udalak, eta behar denean, Udal Ordenantzak eta beste xedapen legal batzuek ezartzen dituzten arauak betzen ez dituzten establezimenduen lizentzia baliogabetzeari ere.

Iraungitzat joko dira lizentziak emakidari buruzko akordioaren egunetik hasita hiru hilabeteren buruan ez bada zabaltzen lokala edo establezimendua edo titularrak, behin lokala zabaldua, jarduerari utzi eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan baxa ematen badu sei hilabete edo gehiagoko epearen barruan.

Eskatzaileak, lizentzia edo dagokion ebazpena eman baino lehen, uko egiten badio lizentziari edo antzeko zerbitzuei, kitatu beharreko kuotak aurreko zenbakietan ezarritako kuoten %50 izango dira, baldin eta udal jarduera hasia bada.

Jarduera-espeditente berria hasi dela jakinarazten ez duten establezimenduen titular aldaketak: lehenago ezarritako tarifyan %15eko hobaria aplikatuko da, baina zenbateko hori ez da izango **1.000,00 €** baino altuagoa.

Lokalen azalera:

Lokalaren azaleratzat joko da eskariarekin batera eransten den agirian agertzen dena eta horrelakorik ez balego, katastroko elementuko krokisaren azalera grafikoa.

Jarduera gehiago hartzeko espeditentearen tramitazioko tasaren likidazioa egitean, aurreko ataletako eskalak aplikatuz kalkulatu da kuota, jarduera zabaltzeari dagokion eremuan soilik, dagoeneko likidatu diren azalera edo azalera aintzat hartu gabe.

Jarduera zabaltzeko espeditentearen tramitazioko tasaren likidazioa denean, azalera gehitzea ez baizik eta fabrikazioa aldatu edo zabaltzea badakar, egiten diren jarduera edo instalazio aldaketak, edo produktu edo gordailu berriak direla eta dagokion espeditentea tramitatu behar delarik, azalera gehitu beharrik gabe: **383,00 €**.

Iragarkia argitaratzearen gastuak dagokien zenbatekoan ordainaraziko dira.

D) EPIGRAFEA: UDAL HILERRIAK



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- 1.- Lehenengoz erabiltzeko batentzako nitxo-esleipen bakoitzeko: **492,49 €**
- 2.- Lehenengoz erabiltzeko birentzako nitxo-esleipen bakoitzeko: **1.896,03 €**
- 3.- Lehenengoz erabiltzeko batentzako nitxo gehi hondarrentzako nitxo esleipen bakoitzeko **1.516,57 €**
- 4.- Hondarrentzako nitxo esleipen bakoitzeko: **1.024,18 €**
- 5.- Lurperatze, desobitze edo leku-aldatze bakoitzeko: **56,49 €**
- 6.- Lurperatze, desobitze edo leku-aldatze bakoitzeko (zinkeko kutxarekin): **109,23 €**
- 7.- Kolunbarioko emakida bakoitzeko: **395,65 €**
- 8.- Zinkeko kutxa erosteagatik: **52,74 €**

Tarifak aplikatzeko arauak:

Ondorengo kasu hauetako zerbitzuentzat ez da tasa ordaindu behar izango:

- 1) Onegintzen egoitzetan babesa izan dutenen ehorzketak.
- 2) Arras pobreak direnen gorpuen ehorzketak.
- 3) Autoritate Judizialak agindu eta hobi komunean lurperatzen diren gorpuak.

Udal hilerrien emakidak ezin eskualda daitezke, eta Udalak ez die ezer ordainduko emakida amaitu baino lehen hondarrak aldatzea erabakitzen duten senideei, salbu eta 92ko abenduaren 15a baino lehen eskuratzen badira, Hilerrien Araudi Berria indarrean sartu zen eguna baino lehen hain zuzen.

Lehenengo okupazioko nitxoak hobiratzea jasotzen du, hilarriko letrak, 10 urte barru hobitik ateratzea eta gorpuzkinak familiak erabakitzen duen lekura eramatera zinkeko kutxa batean.

Emakida edo zerbitzu bakoitzari kitapen indibiduala eta autonomoa egingo zaio –jakinaraziko da-, zerbitzu hori eskaini edo emakida baimendu eta gero, zertarako eta diru-sarrera egiteko Kudeaketa, Bilketa eta Ikustaritzako Udal Ordenantzak dakartzan eran eta epeetan.

E) EPIGRAFEA: SANEAMENDUA

1. Saneamendua:

- Etxeko erabilera:

Kuota finkoa: **4,60 €**

12 m³-ra arteko isurketa: **0,428 €/m³**

13 m³ eta 34 m³ bitarteko isurketa: **0,440 €/m³**

35 m³ eta 60 m³ bitarteko isurketa: **0,456 €/m³**

60 m³-tik gorako isurketa: **0,486 €/m³**

- Merkataritza erabilera:

Kuota finkoa: **5,12 €**

10 m³-ra arteko isurketa: **0,534 €/m³**

11 m³ eta 50 m³ bitarteko isurketa: **0,549 €/m³**

51 m³ eta 250 m³ bitarteko isurketa: **0,596 €/m³**

250 m³-tik gorako isurketa: **0,632 €/m³**

- Industria erabilera:

a) B motako isurketa industrialak, kolektorera egindako isurketen Araudiaren arabera:

Kuota finkoa: **28,64 €**

100 m³-ra arteko isurketa: **0,954 €/m³**

101 m³ eta 1.000 m³ bitarteko isurketa: **0,992 €/m³**

1.000 m³-tik gorako isurketa: **1,030 €/m³**

b) C motako isurketei dagokienez, kolektorera egindako isurketen Araudiaren arabera, tarifa kalkulatzeko hurrengo formula erabiliko da:



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Zenbatekoa= a) isurketa industrialaren kalkuloa + gehiegizko DQO Kg. x **0,394 €** + gehiegizko ST Kg. x **0,309 €** + gehiegizko N-kjendhal Kg. x **0,351 €**

2.- Hartuneak:

Etxebizitza bat:.....	49,74 €
2-6 etxebizitza:	93,95 €
7-20 etxebizitza:	143,70 €
20 etxebizitzatik gora:	265,29 €
Merkataritzako lokala:.....	93,95 €
Industriak, orohar:	143,70 €

3.- Hornidurarengatik tributatu behar ez duten kasuetan udal erroldan alta ematea:

- Orokorrean: **48,84 €**
- Titulartasuna aldatzeagatik: **48,84 €**

4.- Isurketa baimena:

- B motako erabiltzaileentzat, Amorebieta-Etxanoko kolektorera egindako isurketen arautegiaren arabera: **50,85 €**
- C motako erabiltzaileentzat, Amorebieta-Etxanoko kolektorera egindako isurketen arautegiaren arabera: **420,75 €**
- Titulartasuna aldatzeagatik: **48,84 €**

Tarifak ezartzeko arauak

Tasa sortuko da eta zerga ordaintzeko betebeharra izango da aipatu tarifen 1, 2, 3 eta 4. ataletan azaldutako zergapeko egitatea osatzen duen udal zerbitzu edo jarduerari hasiera ematen zaionean. Xede horietarako, zerbitzu edo jarduera hori hasitzat ulertuko da:

1. tarifa:

Saneamendu-zerbitzua ezarrita dagoen lekuetan, zerbitzu hori kolektorera egiten diren isurketen araudiak jasotzen duena izanik, tasa ordaindu behar duten zergapekoen helbideko kale edo lekuetan, sare nagusira hartunea egin den ala ez aintzat hartu gabe; saneamendu-sareari zuzenean zein jabetza partikularreko adarren bidez lotzeak zerbitzua ematea dakarrela ulerturik.

2. tarifa:

Hartuneak baimentzeko zerbitzuetan, lizentzia-eskabidea aurkeztuko den egunean.

3. tarifa:

Alta ematerakoan edota titulartasuna aldatzerakoan.

4. tarifa:

Isurketak baimentzen dituzten zerbitzuetan, kolektorera isurtzeko baimena ematen den egunean.

Tasa hauen kuotaren ordainarazpena egingo da:

1. tarifa:

Hiru hilean behin, alta, baxa edo titularitate-aldaketetan kuota finkoaren hainbanaketa egunetan eginez, ur-hornidura eta zabor-bilketako tasekin batera bildu ahal izango direlarik, 1 tarifak jasotako kasuetan, C motako erabiltzaileak izan ezik; azken kasu horretan, ordaintzeko maiztasuna isurketa-baimenean ageri behar da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Etxeko kontsumoari dagokionez, hobariak jasotzeko HORNIDURA G) Epigrafean ezarritako baldintzak betetzen dituzten erabiltzaileei, horniduran dagokien hobariaren ehuneko berdina aplikatuko zaie saneamenduan.

2. tarifa:

Banaka izaera, kuota egindako ekintza edo zerbitzu bakoitzeko bilduko da, eta tasa hartunea egiteko baimena ematearekin batera likidatu eta ordainduko da.

3. tarifa:

Banaka izaera, udal erroldan alta ematen denean. Kitapena eta tasaren ordainketa altarako baimena ematearekin batera gauzatuko dira.

Titulartasun aldaketagatik tasa likidatzea ez da bidezkoa izango, aldaketa etxebizitza berean eta bizikidetzaren barruan gertatzen bada, ezta gurasoengandik seme-alabetara egiten denean ere.

Nolanahi ere, abonatuak edo titularrak behar bezala kreditatutako langileei eraikinerara sartzen utziko die, kontagailua ikuskatu, irakurri, konpondu edo zigilatzeke.

4. tarifa:

Banaka izaera, isurketa baimena ematen den egunean likidatuko da.

1. tarifaren zenbatekoa kalkulatzeko fakturatu beharreko m³-ak udal saretik etxeko, merkataritzako eta industriako jarduerentzat banatutako hornikuntzagatik fakturatuak izan diren ur bolumenen arabera kuantifikatuko dira, beti ere jarduera horiek ez badituzte beste hornidura iturri batzuk, C motakoak salbuetsiz.

Etxeko, merkataritzako eta industriako jarduerak baliabide propioak badituzte edo beren prozesu industrialetan lehengaitzat ur kantitate handiak erabiltzen badituzte, isurketak neurtzeko sistema bi alderdien artean adostuko da, nahitaez hauetako bat izan beharko delarik:

- 1.)- Isuritako aldiuneko emaria neurtzen duen sistema, hileko guztizko isurketak zenbatzeko totalizatzailea barne.
- 2.)- Kontsumitutako uraren guztizkoa neurtzen duen sistema: baliabide propioen eta udal saretik etorritakoen batura. Kasu honetan, erabiltzaileak hornidura propioko urarentzat neurgailuak jarri beharko ditu bere kontura, eta ordainagirian fakturatuko den zenbatekoa udal horniduren eta hornidura propioaren batura izango da. Baliabide propioak neurtzeko tresnak Udal Zerbitzuek zigilatuko dituzte, eta une oro haien eskura egon beharko dira.

Instalatutako neurgailuetan anomaliak edo akatsak antzematen badira, Udalak kontsumoa balioetsi egingo du.

Industria batek kolektorera egindako isurketak, Isurketen Araudian ezarritako mugen arabera, etxeen isurketen D.Q.O., Kjendhal Nitrogenoa eta Guztizko Solidoak parametroetarako kutsadura balioak gainditzen baditu, ordainagirian gehiago fakturatuko zaio gehiegizko zama kutsakorra isurtzeagatik, tarifen taulako 2. puntuko b) atalean zehazturiko formula erabiliz. Xede horietarako, Kolektorera egindako Isurketen Araudiak etxeko kutsadurarentzat hurrengo balioak ezartzen ditu:

-D.Q.O. (oxigeno eskari kimikoa): 500mg/l.

-Guztizko Solidoak (ST): 450 mg/l.

-Kjendhal Nitrogenoa (NTK): 58 mg/l.

-Isurketa industrialaren gehiegizko D.Q.O. Kg-ak hurrengo formularen bidez kalkulatu dira:

Gehiegizko D.Q.O. Kg-ak = m³ bolumena (isurketa industrialaren D.Q.O. mg/l-500 mg/l)/1.000.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

-Isurketaren gehiegizko Guztizko Solidoen Kg-ak hurrengo formularen bidez kalkulatu dira:
Gehiegizko ST Kg. = m³ bolumena isurketa industrialaren ST mg/l-450 mg/l./1.000.

-Isurketa industrialaren gehiegizko Kjendhal Nitrogeno kg-ak hurrengo formularen bidez kalkulatu dira:

Gehiegizko N-Kjendhal Kg=m³ bolumena (isurketa industrialaren NTK mg/l-58 mg/l)1.000.

Ofiziozko altak

Ur horniketan alta bat ofizioz ematen denean, alta hori ezaugarri berdinekin eta saneamendu datatik aurrera gauzatuko da.

F) EPIGRAFEA: ZABOR BILKETA

1. Zabor bilketa:

	HIRU HILEKO
1.- Etxebizitzak, Etxebizitza eta Garajeen Jabeen Elkarteak	18,32 €
2.- Gehienez 2 pertsonako familiarterako dendak	30,73 €
3.- Gehienez 5 pertsonako industria eta tailerrak	47,08 €
4.- Gehienez 2 pertsonako janari alorreko dendak	41,84 €
5.- Taberna, ardotege eta antzekoak	70,66 €
6.- Antzokiak eta zinemak	61,47 €
7.- Negozioetarako bulegoak, komertzialak ez diren lokalak eta antzekoak	70,66 €
8.- Klinikak eta antzekoak	78,47 €
9.- Industria eta tailerrak (6 eta 50 pertsona bitartekoak)	81,10 €
10.- Garajeak, ibilgailuak konpontzeko lokalak eta antzekoak	81,10 €
11.- Janari dendak (2 pertsona baino gehiagokoak) eta erostetxe txikiak	171,34 €
12.- Hotel, jatetxe, ostatu, egoitza eta antzekoak	171,34 €
13.- Banketxe, Aurrezki Kutxa eta antzekoak	198,78 €
14.- Dantzaleku, ikuskizunetarako areto, diskoteka, diskobar, kafetegi eta antzekoak	166,03 €
15.- 50 langiletik gorako industria eta tailerrak	166,03 €
16.- Eskolak eta Ikastetxeak	166,03 €
17.- Supermerkatu, Zentro Komertzial eta erostetxe handiak	493,06 €
18.- Arraindegia	30,73 €
19.- Aurreko lerrotan agertzen ez diran jarduerak	70,66 €
20.- Jarduerarik gabeko lokalak	30,73 €

2. Hornidura eta saneamenduarengatik tributatu behar ez den kasuetan udal erroldan alta ematea:

- Orokorrean: **48,84 €**

- Titulartasuna aldatzeagatik: **48,84 €**

Salbuetsita egongo dira ofiziozko titulartasun-aldaketak, baldin eta aurreko titularrak ur-horniduran baja emateagatik gertatzen badira.

Tarifak aplikatzeko arauak:

1.tarifa:

Honakoak izango dira zergagaiak, berdin delarik udalaren kudeaketa zuzenez edo kontratista edo udalarentzat lan egiten du enpresaren bidez bada ere: etxeko zaborren derrigorrezko bilketaren zerbitzua eta etxebizitzak, bizitokiak edo lokalak dauden aldeetako edo jarduera industrial, komertzial, artistiko, profesional edo zerbitzuzkoak egiten diren aldeetako hondakin solidoak batzeko zerbitzua. Horretarako, honakoak jotzen dira etxeko zabor eta hiri-hondakintzat: jakien hondarrak edo lokal edo etxebizitzaren ohiko garbiketarik hondakinak; eta horietatik kanpo gelditzen dira, baita



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

tasari lotua egoteko eta ordaintzeko ere, industriako eta materialen hondarrak, obren hondakinak, giza-detrituak, materia eta material kutsatu, korrosibo, arriskutsuak edo berauen bilketak edo isurketak higienearen aldetiko neurri bereziak (profilaktikoak edo segurtasunekoak) eskatzen dituztenak, baita eguneko hustuketa 240 kilogramoakoa baino handiagokoa denean ere. Beren beregi ezartzen da arrandegietako edo arrandegia duen establezimenduko berezko hondakinak biltzea edo isurtzea, neurri higieniko bereziak eskatzen dituenek. Hori dela-eta, establezimendu horiek kudeatu behar dute era horretako hondakin-mota jakin horien bilketa.

Udalak zerbitzua nahitaez eman behar duenean, arau orokorra edo Udal Araudi eta Ordenantzen xedapenak betetzeko, tasaren sortzapena sortuko da interesatuek zerbitzu horiek ematea eragiten ez badute ere. Gainontzekoak borondatezkoak dira eta horien eskaria ez du Udalak egin behar. Nahitaezkozkat jotzen dira honako hauen zabor bilketaren zerbitzuak: etxebizitza, ostatu, hotel, tanatorio, hospital, ikastetxe, egoitza, aterpetxe, bulego, baita industriako, merkataritzako edo zerbitzuetako jarduerak egiten diren lokalena ere.

Zerbitzua ematen hasten den unetik urrera tasa sortuko da eta ordaintzeko betebeharra dago. Nahitaez onartu behar denez, tasa ordaindu behar duten zergadunek erabiltzen duten eraikina dagoen lekuan udal zerbitzuek jartzen dutenetik aurrera hartu beharko da.

Aurreko paragrafoan erabakitakoaren salbuespen gisa, eskatzailearen eskariz eginiko borondatezko zerbitzuei dagokienean, zerbitzuaren baimenez batera sortuko da ordaindu beharra, emandako zerbitzuaren benetako kostuaren %100en berdina dena eta tasa sortuko delarik, beti ere udal zerbitzuek kostuei buruz egindako balorazioaren arabera.

Zerbitzuak emateagatiko tasak hiru hilean behin ordaintzen dira eta tasen hainbanaketa egiten da zerbitzuan alta edo baxa ematen duten egunaren arabera. Tasa sortzen da zerbitzua erabiltzen hasten deneko hiru hilabetearen lehenengo egunean. Alta, baja eta titularitate-aldaketek eskatzen diren egunean sortzen dituzten ondoreak. Zerbitzu hau ematearren kobratu behar den kuota hiru hilabetero kobratuko da, ur hornidura eta saneamenduko zerbitzuari dagozkion kuotekin batera.

Tasa lehenengoz sortzen den egunetik hasita ondorengo hogeita hamar lanegunen buruan, subjektu pasiboek edo ordezkoez erroldan izena emango dute, horretarako dagokion altaren adierazpena aurkeztuko beharko dutelarik.

Ofizios edo interesatuen jakinarazpenaz erroldaren edozein aldaketaren berri dagoenean, dagozkion aldaketak egingo dira bertan, eta ondorioak sortuko dituzte adierazpena eginiko egunean edo Udalak horren berri duenean hasten den kobrantza aldi berean.

2. tarifa:

Banako izaera, udal erroldan alta ematen denean. Kitapena eta tasaren ordainketa altarako edo titulartasuna aldatzeko baimena ematearekin batera gauzatuko dira, hau eskatu ondoren edota ofizios alta eman zaionean.

Titulartasun aldaketagatik tasa likidatzea ez da bidezkoa izango, aldaketa etxebizitza berean eta bizikidetzaren unitatearen barruan gertatzen bada, ezta gurasoengandik seme-alabetara egiten denean ere.

G) EPIGRAFEA: HORNIDURA

1. – Hornidura:

- Etxeko erabilera:

Kuota finkoa: **4,60 €**



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

12 m³-ra arteko kontsumoa: **0,433 €/m³**
13 m³ eta 34 m³ bitarteko kontsumoa: **0,446 €/m³**
35 m³ eta 60 m³ bitarteko kontsumoa: **0,461 €/m³**
60 m³-tik gorako kontsumoa: **0,989 €/m³**

- Merkataritza erabilera:

Kuota finkoa: **5,12 €**

10 m³-ra arteko kontsumoa: **0,572 €/m³**
11 m³ eta 50 m³ bitarteko kontsumoa: **0,588 €/m³**
51 m³ eta 250 m³ bitarteko kontsumoa: **1,135 €/m³**
250 m³-tik gorako kontsumoa: **1,429 €/m³**

- Industria erabilera:

Kuota finkoa: **28,64 €**

100 m³-ra arteko kontsumoa: **1,402 €/m³**
101 m³ eta 1.000 m³ bitarteko kontsumoa: **1,458 €/m³**
1.000 m³-tik gorako kontsumoa: **1,625 €/m³**

2. - Hartuneak:

- Etxebizitza bat: **48,84 €**
- 2-6 etxebizitza:..... **92,25 €**
- 7-20 etxebizitza:..... **141,09 €**
- 20 etxebizitzatik gora:.... **260,47 €**
- Merkataritzako lokala: **92,25 €**
- Industriak, oro har:..... **141,09 €**

3.- Alta udal erroldan:

- Oro har: **48,84 €**
- Titularitate-aldaketak: **48,84 €**

Tarifak ezartzeko arauak:

Aipatu zenbatekoek ez dute Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne hartzen.

Tasa honek sortzapena izango du hartunerako baimena lortu den ala ez kontuan hartu gabe, eta baimentzeko instruitu daitekeen administrazio espedientea hasteari kalterik egin gabe.

Tasaren sortzapena zerbitzua erabiltzen edo ematen den hiruhilekoaren lehenengo egunean gertatuko da. Hogeita hamar laneguneko epean, zerbitzua lehenengo aldiz erabiltzen edo ematen den egunetik aurrera, subjektu pasiboek edo haien ordezkoez harpidetza Erroldan formalizatuko dute, dagokion altaren deklarazioa aurkeztuz.

Tasa hau kobratzeko, guztirako kontsumoari dagokion tarifa hartuko da kontuan, kontsumo-tarteka zatikatu barik. Berdin egingo da kontsumoak erregularizatzean edo aurreko irakurketarik egon ez den kasuetan.

Erroldaren aldaketak:

a) Altak, eskatzen diren lehenengo egunetik emango dira.

b) Bajak, eskatzen diren egunaren biharamunean emango dira; betiere ur zerbitzuak kontagailua desmuntatu badu edota zigilatatu badu. Kontagailua zigilatzen den egunean bertan eten egingo da zerbitzua.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

c) Erroldako datuak aldatu direla jakitean, ofizioz edo interesatuak berak hala jakinarazita, dagozkion aldaketak egin beharko dira erroldan eta ondoreak sortuko ditu aitorpena egin edo udalean horren berri izan denetik aurrera.

Tasa honen ordainarazpena egingo da:

a) Hiru hilean behin ordaintzen dira, eta tasen hainbanaketa egiten da zerbitzuan alta edo baxa ematen duten egunaren arabera. Zabor-bilketako eta saneamenduko tasekin batera bildu ahal izango dira, etxeke erabilera, taberna, komertzio eta gainerako industria-jarduerei dagokien ur-horniduraren kasuetan. Zerbitzu hau ematearren kobratu behar den kuota hiru hilabetero kobratuko da.

b).- Banaka, banaketa sarerako hartuneen kasuan. Tasa hartunea egiteko baimena ematearekin batera likidatu eta ordainduko da.

Edateko uraren ordainagiria edo haren kontsumoarekin loturiko eskubideak eta tasak behin eta berriz eta arrazoirik gabe berandu ordaintzen badira, interesdunak zerbitzuari uko egiten diola ulertuko da. Horren ondorioz, titularrari edo onuradunari baja emango zaio dagokion erroldan, eta hornidura eten egingo da.

c).- Banaka, udal erroldan alta den kasuetan. Hartunea egiteko baimena ematearekin batera likidatu eta ordainduko da tasa.

Titulartasun aldaketagatik tasa likidatzea ez da bidezkoa izango, aldaketa etxebizitza berean eta bizikidetzaren barruan gertatzen bada, ezta gurasoengandik seme-alabetara egiten denean ere.

Nolanahi ere, abonatuak edo titularrak behar bezala kreditatutako langileei eraikinerara sartzen utziko die, kontagailua ikuskatu, irakurri, konpondu edo zigilatzeke.

Ustezko kontsumoak eta erregularizazioa funtzionamendu okerrarengatik:

1.- Egindako kontsumoa ezagutzea ez denean posible, bezeroa kanpoan delako edota kontsumoa zehaztea ezinezkoa egiten duten bestelako arrazoiengatik, hornikuntza ematen duen erakundeak ustezko kontsumo bat fakturatuko du. Horren kalkulua honela egiten da:

a- Ustezko kontsumotzat joko da epe berdineko aurreko urteko kontsumoa, baldin eta hura irakurketa errealez erregistratua bada eta ez badu aurreko hiruhilekotik metatutako kontsumorik.

b- Epe berdineko aurreko urteko kontsumoaren irakurketa errealik ez badago, berau kalkulatu da metatu gabeko irakurketa errealak daukaten aurreko bi hiruhilekoen batez besteko aritmetikoaren arabera.

c- Ustezko kontsumoa aurreko bi metodoen bidez zenbatesteko datu historikorik ez dagoenetan, honako hau fakturatuko da: lehen tarifazio-blokearen goiko mugari dagokion m³ kopuruaren pareko kontsumoa.

Fakturretan "USTEZKO KONTSUMOA" hitzak agertu behar dira. Azkeneko irakurketa noiz izan zen zehaztu beharko da.

Horrelako kalkulatuak kontsumoek "konturako" izaera izango dute eta egoera normalizatuko da gehiegi edo gutxiegi izateagatik hurrengo epeetako fakturretan, kasu bakoitzean egindako irakurketaren arabera.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

2.- Neurgailua gelditu bada edo ez badabil ondo, egungo epearen fakturazioa eta aurreko epeetakoa aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera egingo da. Gelditu bada, erregularizazioa neurgailua geldi egon deneko denboraldiagatik egingo da hurrengo hiruhilekoan. Egoerak bere horretan jarraitzen badu interesdunari egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik, aipatu estimazioari %25a gehituko zaio. Neurgailua ez badabil ondo, ondo ez dabilen denboraldiagatik egingo da, hori zehaztea ezinezkoa denean izan ezik. Kasu honetan erregularizazioa gehienez ere urtebeteko epeagatik izango da. Kontsumoen finkatze honek izaera irmoa izango du.

3.- Kontagailua desagertu bada edota zigiluak manipulatu badira, kontsumoen estimazio bat egingo da. Egungo epearen fakturazioa eta aurreko epeetakoa 1. atalean ezarritakoaren arabera egingo da, aipatu estimazioari %50a gehituko zaiolarik.

4.- Barruko instalazioen artapena eta berriztatzea abonatuari dagokio, kontagailuarenak izan ezik, hauek Udalaren ardura baitira. Interesdunaren edota Jabeen Erkidegoko instalazioak egoera txarrean daudenean (kontagailua aldatzea ezinezko egiten dutenak, identifikatu ezin denean, pasoko giltza ixten denean, etab.) hiru hilabeteko epe bat emango zaio konpondu edota ordezkatzeko. Epe hori gainditu balitz, bigarren puntuan xedatutakoari jarraituko zaio.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa baino ustez handiagoa denean kontsumoa, tasaren oinarritzat eta zehapena aplikatzeko oinarritzat hartuko da kontagailu berria jarri eta hurrengo hiru hilabeteetako eguneroko kontsumoa eta/edo dagokion estimazioa, arau-haustea eman deneko epeari aplikatua, preskripzio epearen gehieneko mugara arte.

Indarrean dauden xedapenen barruan aurreikusi gabe daudenean neurketako akatsak, bai norbanakoek hala egiaztatu dutenean edota Euskal Autonomia Erkidegoko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailei eskatutako kontagailu ofizialekin egiaztatu bada, fakturatutako kontsumoa aldatuko da, akatsaren portzentaia kontuan izanik. Epeari dagokionez, epe zehatza jakiterik dagoenean izan ezik, gehienez ere sei hilabetekoa izango da.

Ofiziozko altak:

1- Ur kontsumoa dagoela antzematen bada eta erabiltzailea ez bada abonatu bezala agertzen eta ez badauka kontagailurik, ofizioz alta emango zaio; erabaki horren berri emango zaio dagozkion ondorioetarako, eta kontagailu bat jartzeko eskatuko zaio. Kontagailurik ez duen bitartean, eta kontsumoa hasi dela jakin den datatik aurrera, fakturatzeko ondoko estimazioa erabiliko da: 50 metro kubiko hiruhileko etxeko erabilerarako eta 100 metro kubiko gainontzeko kasuetarako. Bietan, kuota % 50 gehituko da.

2- Ur kontsumoa dagoela antzematen bada eta erabiltzailea ez bada abonatu bezala agertzen eta ez badauka kontagailurik, ofizioz alta emango zaio; erabaki horren berri emango zaio dagozkion ondorioetarako, eta kontagailu bat jartzeko eskatuko zaio. Kasu horretan, alta jakinaraztearekin batera, egindako kontsumoak likidatuko zaizkio, ateratzen kuota % 50 gehituta.

Ofiziozko titulartasun-aldaketak:

Ur-horniketan baja ematea eskatzen bada eta kontagailua kendu ezin bada, ofiziozko titulartasun-aldaketa egingo da, eta higiezinaren jabea izango da abonatua.

Hobaria:

Familia ugariaren titularrak diren subjektu pasiboek hobaria izango dute 1. atalean; hobari hori ondoko taularen arabera finkatuko da, betiere ondoren agertzen diren baldintzak betetzen badira:



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Familia ugari mota	Hobariaren %
Orokorra	%25
Berezia	%35

Era berean, onuradun horiei hiruhileko 60m³ baino kontsumo handiagoa izango balute, hobari portzentajea aplikatu aurretik aurreko kontsumo tarteari dagokion tasa aplikatuko zaie.

- 1.- Higiezia subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza izatea.
- 2.- Famili unitateko kide guztiak udalerrian erroldatuta egotea.
- 3.- Errentaren maila ez izatea **9.000,00 €**-koa baino altuagoa familiako kide ezindu bakoitzeko, eta bikoiztuta zenbatuko da ezindu bakoitzagatik. Errentaren maila finkatzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpen-agiriaren zerga-oinarri orokorreko laukitxoan agertzen den kopurua izango da kontuan.
- 4.- Kontsumoa ez izatea hiru hilean 11,25 m³koa baino altuagoa pertsonako.

Subjektu pasiboak eskatu beharko du hobaria, eta agiri hauek gehituko dizkio eskabideari:

- Hobariaren eskabidea, non abonatuaren zenbakia identifikatuko baita.
- Bizkaiko Foru Aldundiak emandako familia ugariaren titulua eta, hala denean, kide baten ezintasunari buruzko ziurtagiria.
- Famili unitateko kide bakoitzaren azken errenta-aitortpenaren fotokopia, aitortpena egin beharrik ez izatearen ziurtagiria edo sarrerak ez jasotzearen inguruko zinpeko adierazpena.

Hobari hau eman zen ondorengo ekitaldian aplikatu ahal izango da, eskaria hobaria aplikatzea nahi den aurreko ekitaldiko abenduaren 1a edo hurrengo egun baliodunera orduko aurkeztu beharko delarik. Familia ugariak bere izaeragatik jasotzen duen beste edozein hobarirekin (fiskala edo beste edozein motatakoa) bateragarria izango da.

Familia unitateak familia ugaria izaten jarraitzen duen bitartean hobariak gozatu ahal izango du, eta subjektu pasiboak gai horren inguruko aldaketa guztiak jakinarazi beharko ditu. Administrazioak hobaria emateko baldintzak betetzen direla ofizioz egiaztatze eskubidea izango du, bidezko likidazio osagarriak igorritik, eta baita ere berandutzeagatiko interesak subjektu pasiboa hobariak bidegabe gozatzen ari dela egiaztatzen badu. Hala ere, behar diren aldaketak egiteari kalterik egin gabe, hobariaren amaiera epea familia ugariaren tituluaren iraungitze data izango da.

Behin behineko ur horniketa languneetarako:

Mota honetako hornidurak izaera berezia izango du eta aldi baterako da. Ondoko baldintzetan egingo da:

- a) Horretarako jarritako kontagailu bidez, leku egokian eta behar bezala babestuta, Udalaren iritziz horrela egon beharko delarik.
- b) Alta ematerakoan, erabiltzaileak **500,00 €** ordaindu beharko ditu ordenantza honetan ezarritakoa beteko dela bermatzeko.
- c) Erabiltzaile honi erabiltzaile industrialentzako ezarritako tasa dagokio.
- d) Kontagailua egoera onean izatea erabiltzailearen ardura da. Matxurarik izango balu, erabiltzaileak Udalari berehala jakinarazi behar dio eta behar bezala dabilen beste batengatik ordezkatu. Horrelakorik ez balitz egingo, hornidura eten daiteke eta kontratua ezeztatu.

Obrak egiteko epea amaitu ondoren, uren erroldan dagokion alta izan bitartean, kuota %50ean handituko da.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

H) EPIGRAFEA: BANAKETA SAREAN OPERAZIOAK EGIN ETA NORBANAKOEK EGITEN DITUZTEN LANEN ONDORIOZ ZERBITZUAK EMATEA

Ur horniduran programatutako mozketak bat egin eta gero berriro hornidura berrezartzeak norbanakoek dituzten beharizanengatik edota banaketa sarean bestelako jarduerak burutzeak, hartuneak berari edota maila apalagoko instalazioak, ondoko tarifa sortaraziko du:

- a) Banaketa sarean jarduteko eskari bakoitzarengatik: **57,04 €**.
- b) Mozketa eta berrezartzea ustekabezko haustura baten ondorioz izan bada, banaketa sarean eta norbanakoek eraginda zein ur hornidurako barruko instalazioetan eta berehala konpondu beharrekoa denean, Udalak kontzeptu honengatik **114,76 €** fakturatu ahal izango ditu ur hornidura etenda dagoen ordu bakoitzeko. Interesduna Udalak era ordeztailan egingo lukeen konponketa ordaintzera behartuta dago. Guzti hau izan daitezkeen erantzukizunak kontuan izan gabe.

Aurreko tarifen barruan sartzen ez den beste edozein lan motarako (esaterako hornidura sarea handitzea lotzea edota ordezkatzeta) benetan burutu diren obra unitateen arabera kalkulatu da tarifa. Udalak, dagokionean, lanak egiteagatiko kostua erabiltzaileari helaraziko dio.

I) EPIGRAFEA: ESTOLDA PARTIKULARREN ETA SANEAMENDUEN ZAINZA BEREZIA

Hobi septikoak eta putzu beltzak garbitzeagatik, estoldak ikuskatu eta zaintzeagatik eta finka partikularren saneamendu berezien lanengatik tarifa bat ordainduko da, emandako zerbitzuaren benetako kostuaren zenbatekoaren %100ari dagokiona, beti ere udal zerbitzu teknikoek kostuei buruz egindako balorazioaren arabera.

Aurretik eskabide idatzia egon beharko da, baita administrazioak zerbitzua egitea onartzea ere.

Tarifak aplikatzeko arauak

Epigrafe honetan aipatzen diren zerbitzuak ofizioz burutu ditzake Udalak, osasun, hirigintza, ingurugiro edo gizarte ongizatearen aldetiko arazoiek hala eskatzen badute.

Udal zerbitzu teknikoek egin beharreko balorazioan honakoak bil daitezke lansari, zerbitzusari, material, makineria, garraio eta bidaiari buruz: %15 ikuskatzeagatik, zaintzeagatik eta gastu orokorren alde aurretiko diruagatik, eta %5 gehiago lanaren zuzendaritzagatik.

J) EPIGRAFEA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAK

Erabiltzailearen diru-ekarpena zehazteko, honako eragiketa erabiliko da:

$$\frac{(Urteko diru-sarerrak (F.U.N.)/12 - (indarreko hilabeteko oinarritzko errenta F.U.N.eko kide-kopuruaren arabera) \times 10}{100} = R$$

$$(1 + \frac{\text{zerbitzuaren ordu-kopurua}}{100} \times \frac{F.U.N.}{100})$$

Aplikazioko arauak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren araudiak ezartzen ditu.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

K) EPIGRAFEA: ADMINISTRAZIOAREN JARDUKETAK, PARTIKULAR BATEK ESKATUTA.

Udal instalazioei lotuta badago partikular bat eta instalazioa konpontzeko administrazioaren premiazko jarduketa behar bada, aldez aurretik eskabidea eginda eta administrazioak onartuta, emandako zerbitzuaren benetako kostua dakarren zenbatekoaren %100ari dagokion tarifa ordainduko du, udal teknikarien balorazioaren arabera.

L) EPIGRAFEA: ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
A.1) Herri bidean utzitako animaliak jasotzeagatik, baldin eta partikular batek edo udal-zerbitzu publikoek aurkitzen badute.	62,18 €
A.2) Herri bidean utzitako animaliak jasotzeagatik, baldin eta bilatzeko eta harrapatzeko zerbitzua behar bada.	124,36 €
B) Animalia hilak (txakurrak, katuak eta antzekoak) jaso, garraiatu eta erretzeagatik.	344,85 €
C) Bilketako zentroan ematen duen egun bakoitzeko.	10,89 €
D) Norbaiti haginka egitearen ondorioz agindutako berrogeialdia dela eta, animalia biltzeko zentroan egoteagatik	166,90 €
E) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eduki eta eramateko lizentzia (ematea eta berritzea)	16,98 €

Betearazteko arauak

Animaliaren jabeak edo titularrak tasa Udalaren erakunde laguntzaileetan ordainduko du, animalia bilketako zentrotik jaso aurretik.

M) EPIGRAFEA: IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA, GORDETZEA ETA GELDIARAZTEA

1.- Ibilgailuak bide publikotik kentzea (krokadura edo krokadura eta lekualdatzea): 137,50 €

Gordailurako lekualdatzea gauzatzen ez bada eta ibilgailua krokatzeko maniobra hasi badira, tasak %50 murriztuko dira.

2.- Ibilgailuen gordailua eta zaintza:

A) Lehenengo 2 orduak: Libreak

B) Gainerakoak: **12,00 €** ibilgailu eta eguneko

3.- Ibilgailua ibilgetzeagatik: 40,96 €

Betearazteko arauak

Tasa sortu eta kontribuzioa ordaintzeko betebeharra sortuko da, zergapeko egitatea osatzen duen udal jarduera edo zerbitzua ematen hasten denean. Ibilgailuak bide publikotik kentzean, krokatzeko zerbitzua hasiko da berorren maniobra hasten direnean.

Ibilgetu den ibilgailua itzultzeko eskatzen denean ordaindu beharko da tasa.

Udalaren erakunde laguntzaileetan dirua sartuz edo udaltzaingoaren bulegoetan esku-dirutan ordainduko da tasaren zenbatekoa. Tasaren autolikidaziorako araubidea ezarri da, eta beren-beregi jarritako idazki baten bidez egingo da, subjektu pasiboak edo idazkia aurkeztu duenak sinatua.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Aurkeztean ordaindu behar da. Udaltzaingoak, egunero, horretarako dagoen kontu mugatuan sartuko du bilketako dirua eta udal gordailuzaintzarekin likidatuko du.

Tasa hau ordainarazi eta likidatzeak ez ditu baztertzen Zirkulazioko Arauak zein udaltzaingoaren arauak ez betetzearen ondorioz jar litezkeen isunak.

Udalak ibilgailuak gordetzeko dituen tokietan dauden ibilgailuak herri bideetatik kentzeko eta utzitako ibilgailuak gordetzeko indarreko arautegian oinarrituz esleituko ditu.

N) EPIGRAFEA: UDALTZAINGOAK ZERBITZU BEREZIAK EMATEA

1. Aseguru konpainiek edota norbanakoek eskatuta, trafiko istripuei buruzko txostenak egitea.
 - a. Udaltzaingoak parte hartu izanaren kopiak ematea: **64,83 €**
 - b. Udaltzaingoak trafiko istripua izan denean egindako txostenaren kopia ematea: **102,65 €**
 - c. Trafiko istripu bat izan eta Udaltzaingoak egindako atestatuaren kopia ematea: **280,92 €**
2. Garraio astunak gidatu, zaindu eta lagundu udalerritik pasatzen direnean, zerbitzu bakoitzeko: **77,25 €**
3. Norbanakoak eskatuta, inguru bat mugatu, moztu eta trafikoa aratu, zerbitzu bakoitzeko: **77,25 €**
4. Bestelako zerbitzuak ematea: **61,80 €**

Tasa sortu eta ordaintzeko betebeharra dago tributupean dauden agiri eta espedienteak izapidetzen hastea eragiten duen eskaria aurkezten denean.

Edozein kasutan ere, alde zuzen aurkeztu behar da, behin-behineko izaerarekin eta behin betiko kuota kontura. Dagokion kopurua Udalaren erakunde laguntzaile batean sartu behar da.

3. puntu ematen diren zerbitzuei dagokienez, kitapen hori benetan okupatutako tokiko jabari publikoarengatik sortzen denarekiko independentea izango da, ordenantza fiskal horretan araututakoaren arabera.

O) EPIGRAFEA: AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAN KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA LAN EGITEKO HAUTAPROBETARAKO AZTERKETAK EGITEA

Bete beharreko plazarik dagokion taldeak zehaztuko du tarifa, ondoko taularen arabera:

- A1 taldea: **20,48 €**
- A2 taldea: **15,36 €**
- C1 taldea: **10,24 €**
- C2 taldea, E edota LE: **6,14 €**

Prezioak aplikatzeko arauak

Langabezian daudenek (enplegua eskatzeko txartela erakutsi behar dute) edota barne promozio bidez lanpostua eskuratu nahi dutenek, ez dute tasa ordaindu beharrik izango.

Hautagai bakoitzak berari dagokion tasa ordaindu behar du, aurkeztu nahi den plaza bakoitzeko.

P) EPIGRAFEA: ADMINISTRAZIO DOKUMENTUAK LUZATZEA

- 1.- Hirigintza edo ingurumen arloko edukia duten egiaztagiria ematea: **103,00 €/unitateko**
- 2.- Hirigintza edo ingurumen arloko informazio edota eskariak: **77,25 €/unitateko**
- 3.- Zaratak neurtzeari buruzko txostena (ikuskatzen joateagatik): **309,00 €**



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

4.- Kaleen izenei zein higiezin zenbakiei buruzko egiaztagiriak ematea: **10,30 €/unitateko**

5.- Katastroko egiaztagiriak ematea: **6,18 €/unitateko**

6.- Planoen kopia edota planoak inprimatzea:

	Koloretan	Zuri-beltzean
A0 formatoa edota handiagoa	17,66 €	12,77 €
A1 formatoa	13,97 €	11,54 €
A2 formatoa	12,90 €	11,18 €
A3 formatoa	4,50 €	4,00 €

7.- Udal kartografia euskarri digitalean ematea, Sareak, Arau Subsidiarioak edo Ordenantzak **25,75 €/cd-ko** (bakoitzerako cd bat emango da).

8.- Kopiaak:

	Koloretan	Zuri-beltzean
A3 formatoa	2,50 €	2,00 €
A4 formatoa	0,15 €	0,10 €

Gutxienerako tasa: **2,00 €**

9.- Espedienteetan dauden datuen ziurtagiriak ematea, baldin eta txosten teknikorik eskatzen ez badute: **10,30 €**

Prezioak aplikatzeko arauak

Tasa sortu eta ordaintzeko betebeharra dago tributupean dauden agiri eta espedienteak izapidetzen hasia eragiten duen eskaria aurkezten denean.

Edozein kasutan ere, aldeztu behar da ordaindu behar da. Dagokion kopurua Udalaren erakunde laguntzaile batean sartu behar da edota Udal Diruzaintza Sailean ordaindu, banku txartelaren bidez. Aurkezten den eskariari ordaindu izanaren egiaztagiria erantsiko zaio.

Q) EPIGRAFEA: HIRIGINTZA ARLOKO IZAPIDEENGATIKO TASA

1.- Plan Berezia izapidetzea: **103,00 €** hektarea edo zatiko. (gutxienerako Tasa: **154,50 €**)

2.- Plan Partziala aldatzea izapidetzea: **51,50 €** hektarea edo zatiko. (gutxienerako Tasa: **154,50 €**)

3.- Xehetasun-azterketa izapidetzea: **0,21 €** m² eraikigarriko. (gutxienerako Tasa: **58,35 €**)

Prezioak aplikatzeko arauak

Tasa sortu eta ordaintzeko betebeharra dago tributupean dauden agiri eta espedienteak izapidetzen hasia eragiten duen eskaria aurkezten denean. Dagokion erabakia hartu baino lehen, eskatzaileak atzera egiten badu, kitatu beharreko kuotak adierazitakoaren %50a izango dira, betiere udal jarduera hasita egon bada.

Planeamenduan aurreikusitako hirigintza antolamendua egikaritzeko beharrezkoak diren planak edota xehetasun-azterketak izapidetzeagatik ez da tasarik ordaindu behar.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

R) EPIGRAFEA: OBRAK EDO JARDUERA HASI OSTEAN UDALAK BURUTUTAKO KONTROLA

1. Jarduera komunikatu edota erantzukizunezko adierazpenen inguruan indarrean dagoen araudiaren menpeko obrak kontrolatzen dituen Udalak, aplikatu beharreko tasa B epigrafean bezala (Ordenantza Fiskal honetako hirigintza lizentziak) kalkulatu da eta zenbateko berdinekin.
2. Jarduera komunikatu edota erantzukizunezko adierazpenen pean dauden jarduerak hasi ondoren burutzen duenean Udalak kontrola, kitatu beharreko zenbatekoak ondokoak izango dira:

Lokalaren azalera	Zenbatekoa €/m ²
50 m ² arte	477,66 € Gutxieneko kuota
50 m ² baino gehiago, 150 m ² arte	1,15 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
150 m ² baino gehiago, 250 m ² arte	1,08 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
250 m ² baino gehiago, 500 m ² arte	0,85 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
500 m ² baino gehiago, 1.500 m ² arte	0,76 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
1.500 m ² baino gehiago, 3.000 m ² arte	0,48 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
3.000 m ² baino gehiago, 5.000 m ² arte	0,39 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko
5.000 m ² baino gehiago	0,29 €/m² Aurreko tartea gainditzen duen m ² bakoitzeko

- Urrea saldu eta erosteko dendak, Banku, Aurrezki Kutxa eta gainontzeko finantza-erakundeek zergak goiko taularen arabera ordaindu behar dituzte eta emaitzako zenbatekoa txikiagoa bada, gutxieneko kuota **2.345,43 €**-koa izango da.

- Jarduera komunikatuen kasuan beraiei lotuta azalerarik ez badaukate: **328,70 €**

Aplikazio arauak

Tasa sortu eta ordaintzeko betebeharrak dago tributupean dauden agiri eta espedienteak izapidetzen hastea eragiten duen eskaria aurkezten denean. Era berean tasa sortaraziko da alde aurretiko komunikazioa edo erantzukizunezko adierazpena aurkeztu gabe jarduera edo ekintza burutzen ari denean eta Udalak ikuskaritza lanak burutu eta horren ondorioz duenean burututako obra edo jarduera horren berri.

Lokalaren azalera:

Lokalaren azaleratzen joko da eskariarekin batera erantzen den agirian agertzen dena eta horrelakorik ez balego, katastroko elementuko krokisaren azalera grafikoa.

Jarduera gehiago hartzeko espedientearen tramitazioko tasaren likidazioa egitean, aurreko ataletako eskalak aplikatuz kalkulatu da kuota, jarduera zabaltzeari dagokion eremuan soilik, dagoeneko likidatu diren azalera edo azalera aintzat hartu gabe.

Jarduera zabaltzeko espedientearen tramitazioko tasaren likidazioa denean, azalera gehi-tzea ez baizik eta fabrikazioa aldatu edo zabaltzea badakar, egiten diren jarduerak edo instalazio aldaketak, edo produktu edo gordailu berriak direla eta dagokion espedientea tramitatu behar delarik, azalera gehitu beharrik gabe: **383,00 €**.

S) EPIGRAFEA: HIRIKO ESKOLA-GARRAIOA EGITEKO BAIMENA

- 1.- HIRIKO ESKOLA-garraioa egiteko baimen-eskaera: **25,00 €** ibilbide-baimeneko.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Tarifa ezartzeko arauak:

Tributuari lotutako dokumentuak eta espedienteak izapidetzen hastea dakarren eskabidea aurkeztean sortzen dira tasa eta zerga ordaintzeko beharra.

Aurkezteko epea: Ekainaren 15etik irailaren 15era.

Hartzaileek betebeharreko baldintzak:

Baimena emango zaie kontratu bidez garraioa egitea aldez aurretik hitzartu duten pertsona fisiko zein juridiko edota aldi baterako enpresa-elkarteei, baldin eta betetzen badituzte Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 12.2 artikuluan exijitzen diren baldintzak eta egiaztatzen badute badauzkatela zerbitzua emateko behar diren baliabide materialak.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eredua normalizatuan behar bezala betetako eskabidea.
2. Zerbitzua emateko garraiolariaren eta erakunde kontratatzailearen arteko kontratu-agiriaren kopia; horretan jaso behar da zenbat ibilbide egingo diren, nondik-noraino, non geldituko diren, eta zer ordutegi izango diren. Ikastetxe publikoen kasuan, Eusko Jaurlaritzaren kontratu-agiri administratiboa, eta eranskin batean jasota zenbat ibilbide egingo diren, nondik-noraino, non geldituko diren, eta zer ordutegi izango diren.
3. Garraioaren erabiltzaileei buruzko agiri bat, erakunde kontratatzaileak emandakoa (horretan jaso behar da eskola-umeak direla, zenbat diren eta laguntzailerik eraman behar duten ala ez). Erabiltzaileen zerrenda, eta, Administrazioak hala eskatuz gero, erabiltzaile bakoitzak jarduera komuneko zentroarekin zuzeneko lotura duelako egiaztagiria.
4. Eskabidean sartutako ibilgailuei dagokienez:
 - 1) Zirkulazio-baimena
 - 2) IATA indarrean
 - 3) Aseguru-konpainiaren ziurtagiria, zeinean zehazten diren matrikula, ibilgailu-mota, aseguru-mota eta horren indarraldia eta ordainketa.